



Euskal Herriko
Trikitixa Elkarte

L.G.: SS-418-01

www.trikitixa.net · www.trikimailua.com

URRIAN KALERATUKO DA GEURE KOLKOTIK 2014

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak irmo eusten dio sorkuntza sustatzeko asmoz duela bost urte egindako apustuari eta udazkenean kaleratuko da ahalegin horren azken emaitza. Orain arteko diskoen egiturari eutsiz, hiruna pieza joko dituzten bost soinu-joleren lanek osatuko dute Geure Kolkotik 2014. Uztaila bukaeran burutu zituzten grabaketa lanak Hernaniko Oh Brother estudioan Iñigo Egia teknikari zutela.

Udazkenerako amu gisa, azpian duzue parte hartzaileen zerrenda eta euren lanen aurrerapena:

Imanol Astiasaran "Astiasaran II": "Lehenengo pieza kalejira bat da. "Gure esku dago" izena jarri diogu. Diskoa grabatzea planteatu zigutenetik grabatu bitartean, mugimendu handia sortu da ekimen horren jiran eta horren testigantza utzi nahi genuen. Musikatutako bertsoak dira. Fandango bat ere grabatu dugu". Etapa berri baten ateetan topatu dugu Imanol. "Guraso izateko esperoan gaude eta etorriko zaigun alabari egindako kantua da hirugarrena. Zertarako zen esan gabe eskatu nion aitonari (Imanolen aitari) bilobarentzako bertsoak jartzeko eta jarri ditu". Plazetan huraxe du bikotekiderik ohikoena eta lzer izan du lagun grabaketan. Dena dela, Mikel Markezek jarri dio ahotsa alabari eskainitako kantari. Egindako lanarekin gustura geratu da Imanol eta esker oneko azaldu da bai lanean lagundu diotenekin baita diskoa grabatzeko aukera eskaini diotenekin ere.

Aritz Alustiza: "Proiektu hau niretzat erronka bat izan da, lehen aldian da trikitixa formatu honetan grabatu dudana. Esperientzia ona eta berezia izan da, taldean lan egitera ohituta nago eta proiektu honetan guztia norberarena izatean, erresponzabilitate pixka bat sentitzen nuen. Emaitzarekin oso gustura geratu naiz. Inguruko lagunekin grabatu nahi izan dut eta beraientzat ere esperientzia oso polita izan da. Trikitixa, kalejira eta reggae bat grabatu ditut. Azken kanta hau txalapartarekin grabatuta dago eta preso dagoen lagun bati eskainita dago. Uste dut hemendik aurrera animatuko naizela formatu honetako kanta gehiago egitera..."

Eneritz Bengoetxea: Kalejira bat, trikitixa bat eta baltsa grabatu ditu Eneritzek. "Nik sortutako piezak dira eta Adur Gorostidi aritu da kalejirari eta trikitixari hitzak jartzen. "Herriko festak" da trikitixaren izena. "Eskutik helduz" deitzen da baltsa eta Iñigo Galdos izan da letragilea". Grabaketan, alboan izan ditu taldekide dituen Eider Iraola eta Iñaki Letamendia. Izan du beste kolaboratzaile ere ordea: "Eider Iraola eta Kristina Solano aritu dira kantuan". Grabaketa estudio batean sartzen zen lehenengo aldian izan da Eneritzentzat baina konforme dago egindakoarekin: "Esperientzia berria izan da niretzat. Egunean bertan ez nintzen oso gustura geratu baina gero entzunda, beste bat da sententzia. Errepikatzeke moduko esperientzia izan da".



Iker Dorransoro: "Trikitixa, arin arina eta kalejira bat grabatu ditugu." Triki ta ke taldean ohiko kide dituenak izan ditu alboan. "Igor Telletxea aritu da perkusioan eta Laura Latiendak jarri du ahotsa. Bereziki eskertu nahi nuke Laura eta Igorren lana". Gustatuko litzaiokeena baino denbora gutxiago izan du Ikerrek diskoa prestatzeko baina konforme dago egindako lanarekin. "Trikitixa Elkarte ere eskertu nahi nuke halako aukera bat emateagatik".

Maitane Ayerza: "Oso modu naturalean ateratako kantua dira. Pieza dantzagarriak izatea nahi nuen, ez txapelketetan eta jotzen diren pieza konplikatuko horietakoak, jendea dantzan jartzea da nire helburua". Fandangoa, kalejira eta definitzen asmatzen ez duen pieza bat grabatu ditu: "Lotuko pieza bat da, baina ez dakit nola deitu; "zerbait geldoa" da. Haurdun nago eta horrek inspiratu nau. Oso kantu pertsonala da. Fase aldaketa batean nago eta aldaketa hori islatzea nahi nuke". Aiora Urdangarin izan du alboan: "Polita izan da Aiorarekin grabatzea. 11 urte genituenetik gabiltza elkarrekin eta ilusioa egiten zidan elkarrekin halako esperientzia bat konpartitzeak. Gainera, taldean jotzera ohituta gaude gu eta erronka polita izan da gitarrarik edo baxurik gabe zer egin dezakegun grabatzea". Orohar, pozik geratu da emaitzarekin "gero beti topatzen da zer hobetua baina"...

SORKUNTZA ETA INPROBISAZIOA AZTERGAI DONOSTIAN

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak antolatuta, irailaren 10ean eta 11an burutuko dira Inpernuko hauspoa Trikitixaren XII. Jardunaldiak. Aurreko edizioetan trikitixaren oraina eta geroa, trikitixa eta debekuak, koplak, Elgeta, txapelketak, teknologia berriak, trikitixa eta emakumea, dantza, soinu txikia munduan, irakaskuntza eta disko-gintza aztertu ostean, sorkuntzaz eta inprobisazioaz arituko gara aurten. Azken urteetan bezala, Donostiako Udal Liburutegiko so-toan elkartuko gara:

IRAILAK 10, 19:30

Aitor Furundarenaren hitzaldia.

IRAILAK 11, 19:30

Saio praktikoa Xabier Solanoren eskutik.



Xabier Solano.

TRIKITILARI GAZTEEN TXAPELKETAK NONAHI

Urte sasoi honetan ohikoa denez, aurten ere txapelketa batetik bestera dabilta trikitilari gazteak. Jarraian duzue zenbait txapelketetako emaitzen berri:

Getariko XV. Trikitilari Gazteen Txapelketa (2014-05-31)

1. Julen Alonso eta Eneritz Aulestia
2. Maria Lasa eta Garazi Otaegi
3. Irati Gutierrez eta Amets Ormaetxea

Elosuko Otaba jaietako I. Trikiti Txapelketa (2014-06-21)

1. Larraitz Etxarte eta Olatz Leturiaga
2. Iñigo Dominguez eta Itsaso Gurrutxaga
3. Alaitz Urdalleta eta Aiala Etxabe

Orioko V. Trikitixa Txapelketa (2014-06-29)

1. Julen Alonso eta Eneritz Aulestia
2. Maria Lasa eta Garazi Otaegi
3. Irati Gutierrez eta Amets Ormaetxea

Elorrioko I. Trikitilari Gazteen Txapelketa (2014-07-04)

1. Julen Alonso eta Eneritz Aulestia
2. Josune Arakistain eta Alaitz Eskudero
3. Alaitz Urdalleta eta Aiala Etxabe

Baztan, Maldaerreka, Bidasoako XVII. Trikitixa Txapelketa (Lesaka 2014-07-05)

1. Julen Alonso eta Eneritz Aulestia
2. Itsaso Elizagoien eta Iruñe Elizagoien

Martindegiko XVII. Trikitilari Gaztekoen Txapelketa (2014-07-06)

1. Eider Tolosa eta Lierni Tolosa
2. Garazi Otaegi eta Sara Iriarte

Zestoa, Arroa Beheko VI. Trikitilari gazteen txapelketa (2014-07-20)

1. Alaitz Urdalleta eta Aiala Etxabe.
2. Naiara Mantzisor eta Jugatz Oleaga
3. Iñigo Dominguez eta Itsaso Gurrutxaga

Euskadiko XXXIV. Trikitixa Txapelketa (Zeanuri 2014-08-15)

1. Itsaso Elizagoien eta Iruñe Elizagoien
2. Julen Alonso eta Eneritz Aulestia
3. Alaitz Urdalleta eta Aiala Etxabe



I. ERRAZU

Zizurkil Goiko Trikitilari Gazteen X. Txapelketa (2014-08-17)

1. Maria Lasa eta Garazi Otaegi
2. Irati Otaegi eta Maria Lasa


Zorionak txapelketetan parte hartu duten guztiei.

JOSE OÑEDERRA "URKI" TRIKITILARIA HIL DA

Debako (Gipuzkoa) Lastur auzoko Urki baserrian jaio zen Joxe Oñederra Elorza, 1937an. Bere aita zenak ere jotzen omen zuen ilara bateko soina eta hark ekarritako soinu batekin hasi zen Jose bederatzi urte zituela. Sakabik erakutsi zizkion ikasi zituen lehenengo hiru piezak. Bere kasa jarraitu zuen gero baina Elgetak ere astebeteko hiru egonaldi egin omen zituen euren etxean.

11 urte zituela Attola Berrin jo omen zuen soina estreinakoz jendaurrean eta huraxe zuen bere plaza kutuna. Azken boladan soina baztertu samartuta baldin bazuen ere, 2009ko San Josetako jaialdian omendu zuten Joxe Makazaga "Zio-lar"ekin batera.

Uztailaren 16an hil zen Deban 77 urte zituela.



UDAZKENEAN ARGITARATUKO DA ZENDOIARI BURUZKO LIBURU-DISKOA

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak Soinuaren liburutegia bildumako ale berri bat kaleratuko du aurki. Udazkenean argitaratuko da Laxaro Azkune Azpeitiarrak osatu duen Tomas Zubizarreta "Zendoia" soinujolearen biografia liburu-diskoa.

Laxarok berak liburuan aitortzen duen moduan, "Tomasen soinuarekin dantzan egindakoa naiz behin baino gehiagotan". Aspaldiko ezagunak dira Zendoia eta Azkune. Azkoitiko Martitte auzoan ezagutu zuten elkar. Martitte, Zendoia jaio zen auzoa izateaz gain, erromeri leku garrantzitsua izan zen urte askotan. 1947 urte inguruan hasi eta hirurogeita hamargarren hamarkadaren erdi aldera arte, Zendoia ia iganderoko soinu jolea izan zen bertan.

Pasadizo ugari tartekatuz kontatzen du Laxarok 9-10 urte zituela trikitixarekin maitemindu zen mutikoaren bizitzaren berri. Soinua bizkarrean hartuta hainbat bazterretan ibili eta gero, asko dira Zendoiak dituen leku kuttunak eta haiek ere badute tokia liburuan. Haren jiran ibili izan diren soinu eta pandero joleek Tomas buruz esandakoak ere ageri dira.

Ederra izan omen da Laxarorentzat "jendea pozten bizitza daraman gizonaren berri bildu eta zabaltzea". Ziur ederra dela irakurleontzat ere jendea pozten bizitza daraman gizonaren berri izatea.



XABI ABURRUZAGAK IRABAZI DU ORTIGUEIRAKO JAIALDIKO "PROYECTO RUNAS" LEHIAKETA



Folk musika gustuko dutenentzako zita garrantzitsua bilakatu da uztailean Galizian burutzen den Ortigueirako jaialdia. Horren adibide da esaterako, aurtengo edizioan 50.000 lagun baino gehiago bildu izana.

Jaialdi horren baitan antolatzen da musika talde berriei zuzendutako "Proyecto Runas" lehiaketa. Xabi finalista izana zen 2010. urtean baina oraingoan Portugaleteko trikitilaria nagusitu zen taldekide dituen Aitor Antruego eta Jose Urrejola musikariek batera.

Pepe Vaamonte gaita-joleak, Diego Maceiras eskusoinulariak eta Manuel Garrido gaita maisuak osatu dute aurtengo epaimahaia eta originaltasuna, afinazioa, aldaerak, erritmoak, folkaren egituren erabilera eta ikuslegoarekin interakzioa izan dituzte kontutan sariak banatzeko orduan.

5.000 euroko diru sariaz gain, Xabi Aburrizaga Band-ek datorren urtean burutuko den XXXI. Ortigueirako jaialdian parte hartzeko aukera izango du.

URDAIBAI KEPA JUNKERAREN TRIKITIXAN

Erakusketa berezia antolatu dute Busturiako Madariaga Dorretxean. Euskadiko Biodibertsitatearen Zentroaren helburua, herritarrak ingurumena zaintzearen garrantziaz ohartaraztea izanik, kulturaren bitartez islatu nahi izan dute garrantzia hori.

Busturian bertan bizi da Kepa eta Urdaibairekin harreman estua duela aitzakia hartuta, ingurumenak kulturaren eragina duela frogatu nahi dute antolatzaileek. Erakusketak musikariaren hainbat objektu pertsonal batzen ditu: albokak, trikitixak, akordeoiak, panderoak... Jakina denez, Kepak hainbat sari irabazi ditu haren musika ibilbidean eta ikusgai izango dira esaterako, 2004ko Grammy-a, 2004ko Bilbotar Entzutetsua saria, 2013ko Martinez Forner saria eta Urrezko Disko bat.

Biodibertsitate Zentroko erakusketa irailaren 30a arte izango da ikusgai eta doakoa da sarrera.



Tomas Zubizarreta “Zendoia”: “Apaizek asko agintzen zuten orduan, eta agarratuan egin ezinda ibili ginen auzoan; apaizarekin eskandalu mordoxka izan nituen, ez zuelako onartzen musika hori. Jende asko etortzen zen Martiritara, eta agarratua dantzatzen zutenen izen-abizenak apuntatzen zituen apaizak. Elizan kongregazioa egiten zen, eta dantzan aritu ziren hiru neska kongregaziotik atera zituzten. Haietako batek erantzun zuen berak ez zuela bekatu egin eta hurrengoan ere dantza egingo zuela. Herrian libre zegoen agarratuan egitea, baita Urrategin, Madariagan eta Aizpurutxon ere. Denean egin zitekeen, Martiritan izan ezik. Nonbait, beraiek jarraitu bitartean lehengo ohitura haiek mantendu nahi zituzten”.

Urola Kostako Hitza (2014-03-23)

Iñaki Plaza: “Betidanik landu dut trikitia, baina disko honetan ez nuen oinarritu nahi soilik instrumentu horretan. Musikarekin hasi nintzenean genero bakarra landu nuen, baina gaur denetarik entzutea gustatzen zait. Gehiago esango dizut, trikitia geroz eta gutxiago entzuten dut. Egia esan, eta nire tresna izan arren, trikitia instrumentu mugatua da. Disko honetan erritmo berriak landu nahi izan ditut, hala nola punka, bossa nova, balada eta baita fandangoa ere”.

Berria (2014-06-07)

Igor Susaetaren zutabea: “Zer izango ziren Euskal Herriko mendi magaletan zintzilik dauden auzo eta herri txikitako festa egunetako ospakizunak, meza entzun ondoren ateratako argazkitik trikitilariak, pandero jotzaileak eta bertsolariak ezabatuko balituzte? Argazkiak mantenduko luke klasikotasunaren usain hunkigarri bezain barnerakoi hori, eta, beharbada, gainera, sinesgarriagoa izango litzateke dekorazio elementuak –trikitia, panderoa, mikrofonoak, bertsolari pareak eskuak poltsikoetan ezkatuta– laukiratzetik alboratuko balituzte. Sorkuntza, artea atrezzo hutsa bihurtzea gauza triste eta injustua da eta...”

Berria (2014-06-22)

Ines Osinaga: “Nik trikitixa jotzen dut eta trikitixa da nik barruan daukadan arma gauzak esateko. Baina fandangoak eta arin arinak jotzeaz erabat nazkatu nintzen momentu bat heldu zen eta nire buruarekin erroka izan zen ea posible izango ote zen trikitixa beste gauza batzuk esateko erabiltzea” ... “nire buruari frogatzea, nahiz eta gitarra ez jo fandangoa eta arin arina ez ziren beste abesti klase bat egiteko gai banintzela, trikitixa jo arren”.

Ttalaka.org (2014-08-07)

KEPA JUNKERA, ASTE NAGUSIKO ERRALDOI

Aspaldikoa da Kepa Junkerak Bilboko Aste Nagusiarekin duen harremana. 1997an konposatu zuen Bilboko jaien marka bihurtu den “Badator Mari Jaia” kantua eta jaietako pregoilari ere izan zen 2007an. Kepak Bilboko Aste Nagusiarekin duen lotura saritu nahi izan zuten Moskotarrak konpartsako kideek eta geroz eta prestigio handiagoa duen Erraldoia eman zioten Aste Nagusiko “ezinbesteko pertsona” bezala izendatzearekin batera.

KORRONTZI + BOS = KONTZERTU DISKOA

Korrontzi musika taldeak, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin (BOS) kontzertu-diskoa grabatuz ospatu zuen bere hamargarren urteurrena. Abuztuaren 20an, Bilboko Aste Nagusian, Abandoibarran eskaini zuten Korrontzi & BOS ikuskizuna. Xabier Zabala aritu da orkestrari dagozkion konponketak egiten eta berak zuzendu zituen orkestra eta Korrontzi Abandoibarran. “Symphonic Bilbon” izena emango diote diskoari.